# Rs2.2. 14 urte dituztenek kurrikuluaz duten ezagutza-maila. (DBHren 2. Ikasturtea)

**DBHko 2. Ikasturtean Gaztelera (irakurmena eta hizkuntza-arauak eta literatura) eta Matematiken alorretan duten kurrikuluari buruzko ezagutza-maila. (14 urte)**

Adierazle honek, 14 urte dituztela, kurrikuluaren ezagutza-mailari buruzko informazioa ematen du,gaztelaniari (irakurmena eta hizkuntza-arauei buruz) eta Matematikei dagokienez.

EAEko ikasleek Estatuko batez bestekoa baino puntuazio altuagoak lortu zituzten Irakurmenean eta Matematiketan, eta Hizkuntza-arauetan eta Literaturan antzeko puntuazioak lortu zituzten.

Hezkuntza-sareei dagokienez, hala Irakurmenean nola Hizkuntza-arauetan, Estatuko sare publikoko zentroetako ikasleek EAEko sare bereko ikasleek baino puntuazio zertxobait hobeak lortzen dituzte; sare pribatuan, aldiz, emaitzak bestelakoak dira, hau da, EAEko sare pribatuko zentroetako ikasleek Estatuko sare pribatukoetakoek baino emaitza hobetuxeagoak eskuratzen dituzte. Matematiketan, edozelan ere, EAEko ikasleek Estatukoek baino emaitza hobeak izaten dituzte.

Komunitate Autonomoen arabera (KKAA, EAEko ikasleek, irakurmenean, bi Komunitate Autonomokoek baino emaitza nabarmen kaskarragoak lortzen dituzte, beste bost Komunitate Autonomoen emaitza berberak eta zortzi Komunitatekoenak baino hobeak; Hizkuntza-arauei dagokienez, errendimenduak hiru Komunitate Autonomoenak baino nabarmen altuagoak dira, laurenak baino okerragoa eta gainerako zortzien berberak; eta Matematiketan, ez dago batez besteko alderik hiru Komunitate Autonomorekin eta esanguratsu eta aldekoa da gainerako hamabi Komunitate Autonomoekin.

Komunitate Autonomo elebidunak hartzen baldin baditugu, EAEko ikasleek, bai irakurmenean nola Hizkuntza-arauetan, horietako laukoek baino emaitza nabarmen hobeak eskuratzen dituzte eta batekoek baino kaskarragoak, eta Matematikei dagokienez, emaitzen aldeak adierazgarriak dira EAEko ikasleen alde lau Komunitate Autonomo elebiduneko ikasleenen aldean, eta ez dago alderik bosgarrenarekin.

## Rs2.2.1 Taula

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko batez besteko datuen arteko alderaketa Gaztelania eta Matematiketan. 1997. urtea. (TRI puntuazioak).

| 1997 | Irakurmena (Gaztelaniaz) | Hizkuntz arauak eta Literatura (Gaztelania) | Matematika |
|---|---|---|---|
| EAE | 225 | 226 | 242 |
| ESTATUKO BATEZB | 221 | 226 | 227 |

## Rs2.2.1 Grafikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko batez besteko datuen arteko alderaketa Gaztelania eta Matematiketan. 1997. urtea. (TRI puntuazioak).




Oharrak:
- TRI puntuazioak: TRI edo Teoría de Respuesta al Item delakoa (Itemi emandako erantzunaren teoria) erabiltzen duten ebaluazioek, ikasleen errendimendu indibidualaren emaitzak 0tik 500erako eskala batean, 250eko batez besteko globalean eta 50eko desbiderapen tipikoan aurkeztea ahalbidetzen dute. 14 eta 16 urte bitarteko mailetarako eskala arrunta da: hori dela eta, 14 urteko adinarentzat (DBHko 2.a), eskalaren batez besteko puntua ez da 250ekoa, txikiagoa baizik.
- 1995. urtean Lehen hezkuntzan ez zuten ingelesaren ebaluazioa egin .

Iturria: INCE ikerketa eta txostenak. 2. Eskola-emaitzak. Hezkuntza sistemaren diagnostikoa. Derrigorrezko Bigarren Eskola.

**Rs2.2.2 Taula**

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko batez besteko datuen arteko alderaketa Gaztelania eta Matematiketan, sarearen arabera. 1997. urtea. (TRI puntuazioak).

| 1997 | Irakurmena (Gaztelaniaz) | Hizkuntz arauak eta Literatura (Gaztelania) | Matematika |
|---|---|---|---|
| PUB EAE | 214 | 213 | 231 |
| KONTZER. EAE | 234 | 236 | 250 |
| PUB. EST. BATEZB | 216 | 220 | 221 |
| KONTZER. EST. BATEZB | 229 | 235 | 236 |

**Rs2.2.2 Grafikoa**

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko batez besteko datuen arteko alderaketa Gaztelania eta Matematiketan, sarearen arabera. 1997. urtea. (TRI puntuazioak).



## Rs2.2.3 Taula

Gaztelania eta Matematiketan ateratako puntuazioen alderaketa, Komunitate Autonomoen arabera. 1997. urtea. (TRI puntuazioak).

| 1997 | Irakurmena (Gaztelania) | Hizkuntza arauak eta Literatura (Gaztelania) | Matematika |
|---|---|---|---|
| Aragón | 232,2 | 236,6 | 244,8 |
| Asturias | 225,4 | 230,7 | 228,2 |
| Baleares | 215,9 | 219,4 | 215,0 |
| Cantabria | 221,5 | 228,8 | 228,8 |
| Castilla-La Mancha | 215,8 | 222,0 | 220,0 |
| Castilla y León | 227,2 | 232,1 | 231,9 |
| Cataluña | 218,0 | 215,6 | 224,0 |
| Ceuta/Melilla | 211,6 | 223,4 | 207,6 |
| Extremadura | 214,9 | 223,0 | 226,1 |
| Galicia | 229,9 | 241,2 | 230,9 |
| La Rioja | 224,1 | 231,7 | 241,5 |
| Madrid | 223,4 | 232,2 | 232,1 |
| Murcia | 209,5 | 213,4 | 212,9 |
| Navarra | 217,5 | 215,2 | 238,6 |
| **EAE** | **224,5** | **225,6** | **241,6** |
| C. Valenciana | 219,9 | 219,4 | 215,3 |

## Rs2.2.3 Grafikoa

Gaztelania eta Matematiketan ateratako puntuazioen alderaketa, Komunitate Autonomoen arabera. 1997. urtea. (TRI puntuazioak).




Iturria: INCE ikerketa eta txostenak. 2. Eskola-emaitzak. Hezkuntza sistemaren diagnostikoa. Derrigorrezko Bigarren Eskola

## Rs2.2.4 Taula

Gaztelania eta Matematiketan ateratako puntuazioen alderaketa, Komunitate Autonomo Elebidunen arabera. 1997. urtea. (TRI puntuazioak).

| 1997 | Irakurmena (Gaztelaniaz) | Hizkuntz arauak eta Literatura (Gaztelania) | Matematika |
|---|---|---|---|
| Baleares | 216 | 219 | 215 |
| Cataluña | 218 | 216 | 224 |
| Galicia | 230 | 241 | 231 |
| Navarra | 218 | 215 | 239 |
| EAE | 225 | 226 | 242 |
| C. Valenciana | 220 | 219 | 215 |

## Rs2.2.4 Grafikoa

Gaztelania eta Matematiketan ateratako puntuazioen alderaketa, Komunitate Autonomo Elebidunen arabera. 1997. urtea. (TRI puntuazioak).




Iturria: INCE ikerketa eta txostenak. 2. Eskola-emaitzak. Hezkuntza sistemaren diagnostikoa. Derrigorrezko Bigarren Eskola.